



# ENTZUTEKO IDAZTEN

## **BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY**

Hizkuntzaren erabilera deskriptiboarekin trebatzeko hainbat aukera eskaintzen dituen ariketa da hau.

## **AIM OF THE ACTIVITY**

Irratirako idazteko irizpideak eta xehetasunak ezagutzea. Edukiak egituratzeko gai izatea.

## **EXPECTED OUTCOMES**

Ariketa bukatzerako, ikasleak honakoez jabetuko dira: Esatari batek irratirako idatzizko pieza bat sortzeko erabili behar duen tresna kopuruaz eta horien garrantziaz (ahotsa, jatorrizko soinuak, musika, soinua). Atal batean landuko den gai nagusia definitzearen garrantziaz. Erantzun beharreko galdera nagusiez (Nork, non, noiz, zer, zergatik, nola). Albiste bati balioa ematen dioten alderdiez. Ulertua izateko behar diren gutxienekoez (ulerterraza izatea, esaldi motzak, argiak eta ongi egituratuak erabiltzea, arreta erakartzen duten elementuak erabiltzea). Hizkuntza biziaren erabileraz.

## **INFORMATIONS FOR TRAINERS**

### **EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED**

Aholkulari lanetan jardun beharko du hezitzaileak.

### **INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES**

Erreproduzitzeko tresneria, grabazioak ariketaren parte gisara erabiliko badira.

### **LENGTH**

Ordu bat edo bi, ariketaren aldaera bat edo beste egitearen arabera.

### **MATERIALS**

Papera eta idazmateriala. Egunkariak, prentsa-oharrak, berri-agentzien oharrak. Grabaturiko soinuak, argazkiak edo posta-txartelak.

### **DESCRIPTION**

## **HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE**

Ariketa honi ekiteko hainbat modu daude - Literaturazko atal bana emango zaio partaide bakoitzari, prentsa-oharra balitz bezala erabili beharko dutena, iturri bezala erabiliz albisteak idazteko. - edo ikasleek jadanik argitaratutako testuak aztertuko dituzte, gai nagusia identifikatzeko eta irratirako albiste moduan berriidazteko. - edo hezitzaileak hitz edo esaldi gakoak emango dizkie (esaterako, alkohola), horri buruzko irratirako idatzi bat egin dezaten. Lehenbizi, gai nagusia zehaztu beharko dute, eta gero taldeari aurkeztu eginikoa. - edo partaideek hizkuntza deskriptiboari arreta jarri heldu diote ariketari. Guztiak kalera aterako dira, zerbait interesgarria topatu eta horri buruzko irati-testu bat idazteko, hizkuntza deskriptiboa erabiliz. Jardueraren helburua jendearen buruan irudikapenak sortzen ikastea da. - edo parte-hartzaileak bi taldetan banatuko dira (A eta B). A taldea kanpora aterako da. A-ko kide bat barrura sartuko da berriz ere. B taldeko pertsona bati bere gelarik gogokoena deskribatzeko esango zaio, eta gero kanpora aterako da, A taldeko beste kide bat sar dadin. Hasieratik barruan zegoen A taldeko kideak kanpora atera denaren deskribapena ahal bezain ondoen errepikatuko dio sartu berri den kideari. Prozedura errepikatu A taldeko kide guztiek deskribapenaren beraien bertsioa eman izan arte. B taldekoek pertsona bakoitzaren deskribapenak dauzkan aldeei erreparatuko diete. Oharra: ikasleek soilik ahoz egin behar dute deskribapena. Talde osoak erreparatuko die gero deskribapenetik deskribapenerako aldaketei. - edo hezitzaileak egoera ezohiko bat, probokatzailea, sortuko du, hiru bat minutuz luzatuko duena (esaterako, hizkuntza aldatzea, diskurtsoa aldatzea, espero ez den zerbait egitea, hala nola mahai gainean tente jarri, edo espero ez diren soinua egitea, ikusmen urritasuna daukaten kideentzat), esan gabe ikasleei zein den aldaketa horren zioa. Ekitaldiaren kronika labur bat idatzi beharko dute ostean ikasleek, hori deskribatuz.

## **RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO**

10 hezitzaileko, 4 hezitzaileko ikusmen urritasuna edo ikasteko zailtasunak dauzkaten kideekin.

## **RISK AND POSSIBLE ADAPTATION**

Ikusmen urritasuna edo itsutasuna duten kideekin, jarduera aldatu daiteke soinua erabiliz ezohiko egoera bat sortzeko. Beraien ordenagailu eramangarri propioak beharko dituzte, eta gela beraiantzat egokitua dagoela bermatu. Berriz ere, hezitzailea ikasleen beharrez ohartu behar da, eta horien arabera erabaki ariketaren zein bertsioarekin lan egingo duten.

## **VARIATIONS**

## **TIPS FOR TRAINERS**

## **PARTICIPANTS**

## **ANALYSIS AND EVALUATION**

## **SCHEDULING**